

Xantaiazko lapurreta, joko txarra!

Ximun: E be, Maiana, zer apetitua duzun egun hauetan, jantegian!

Maiana: Ez, ez hainbeste...

Ximun: Bai eta nola! Usaian zure bazkariaren finitzen laguntzen zaitut, aldiz gaur, dena irentsia duzu, jadanik!

Kattin: Ximun xuxen da. Menturaz ez duzu aski jaten gosaltzean...

Maiana: Bai, ontsa gosaltzen dut. Ez da hori **ARAZOA...**

Agata: Beraz, zer gertatzen da?

Maiana: Ez dut aipatu nahi.

Ximun: Are, Maiana, **arazorik baldin baduzu, erran behar diguzu!**

Maiana: Ados, baina ez diozue nehuri kontatuko?! Egiaren errateko, usaian baino gose gehiago baldin badut, kanpoko tenorean **handi batek askariko fruituak kentzen dizkidalako da.** Gainera, erran dit norbaiti aipatuz geroz, gorriak ikusiko ditudala...

Ximun: A, hori da?!!! Ez duzu deusetan horrela egon behar!

Maiana: Egitea baino aiseago da erratea! Ez baldin badut onartzen ene askaria hari ematea, menturaz bere lagunekin etorriko zait mendekatzera, eta ni haien **BELDUR** naiz!

Ximun: Ez erran holakorik! **Orain ez baldin baduzu deus erraten fruituak kentzen dizkizularik, gero eta gehiago baliatuko da zutaz.** Eta behar bada, egun batez, dirua galdatzen hasiko zaizu!

Agata: Ximunek arrazoi du. **Zure burasoei eta irakasleari ere aipatu beharko zenieke.** Segur naiz behar den guzia egingen dutela holakorik egitera ez uzteko.

Maiana: Ados, aipatuko diet.

Ximun: Bistan da baietz! Ez duzu jostagaraian jan gabe egon behar haiengatik!

Itzulpena: Maialen Bidegain

